

5/2015 Legea, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoa. Printzipio eratzailerak

“...Gizonak ba du inguru latz bat menperatzeko premia,
burruka hortan bizi da eta hori du bere egia.
Ekin ta ekin bilatzen ditu,
saiatze hortan ezin gelditu,
jakintza eta argia;
bide ilunak nekez aurkitu
lege berriak noizpait erditu, hortan jokatuz bizia”
“Eta ametsa bilakaturik egiaren antziduri
herri zahar batek bide berritik ekingo dio urduri; (X. Lete)

Urriaren 3ra arte indarrean egongo da 3/1992 legea, uztailaren 1lekoa, Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilari buruzkoa. Lege hori da euskal legegilerak 1526. urtetik hona (Bizkaiko Foru Berria onetsi zenetik gaur arte) osatu duten euskal foru zuzenbide zibilaren lehen lege-testu idatzia.

Konstituzioak eta Autonomia Estatutuak ahalbidetu duten euskal zuzenbide zibila iraunarazi, aldatu eta garatzeko eskumenaren lehen emaitza eta urrats txikia eta laburra izan arren, badu bere garrantzia. Premiazkoa zen euskal zuzenbide zibila eraberritzea eta eguneratzea. Hala ere, horiek legearen xede eta lehentasuna izanik ere, aldatze eta garatzeko aldia hasteko beharra aitortzen zuen legeak berak.

Aspalditik datoz bat eragile juridiko guztiak euskal zuzenbide zibilaren egoera osasungaitz eta kezkarriaren diagnosiarekin. Horretara, besteak beste, 3/1992 Legearen eguneroko aplikazio praktikoa adierazitako arazo eta hutsuneak; ondasunak aukera askean erabiltzeko herritarren eskaria; gehiegizko seniparteak; tronkalitatearen gehiegikeriak; ahalordearen boterearen edukia; dualtasun juridikoa eta lur ezarpen eremu zehaztugabea Bizkaian; oinordetza eremuan legeria zatiketak eragindako bereizketak eta bidegabekeriak... guztiak dira gairak beharreko korapiloak. Era berean, argi ikusten da egoera hori zuzentzeko eta multzo erkide batean oinarritutako euskal zuzenbide zibil bat eratzeko, legea aldatu eta garatzeko premia luzaezina dela.

Aitzitik, erreforma horren noranzkoa, jomuga eta helburuak, alegia, euskal zuzenbide zibilaren edukia eta etorkizuna eztabaidan izan dira, baita erreforma egiteko modua edo metodologia ere.

Urteetako lanaren ondorioz, ekainaren 25ean, Eusko Legebiltzarrak —Zuzenbidearen Euskal Akademiak prestatu zuen lege proposamenaren oinarrituta—, Euskal Zuzenbide zibilaren legea onetsi du, aurkako botorik gabe.

Lege berria gaur egungo errealitate eta testuinguru sozioekonomikoari egokituta sortzen da eta sustraiak ditu tradiziozko eta ohiturazko zuzenbidean. Eta bere eduki zehatza eztabaidagarria izan daitekeen arren, etorkizunean euskal zuzenbidea sakondu, aldatu eta materia eta eremu ezberdinetara zabaltzeko duen egitura irekia ukaezina da. Legeak ez du aterik ixten, ez eta etorkizunerako aukerak mugatu edo oztopatu ere. Eta helburu horrekin, Euskal Zuzenbide Zibilaren garapena sustatzeko, besteak beste, Zuzenbide Zibilaren Batzorde aholku-emailea eratzen da.

Askatasun osoz idatzia eta askatasun zibila oinarritzat duen legea da. *“las leyes del Fuero son más de albedrío que de sotileza y rigor de derecho..”*, zioen 1526ko Bizkaiko Foru Berriak, eta Euskal Zuzenbide Zibilaren 5/2015 legearen 4. artikulua arabera, arauak esku emaileak izango dira. Eskubidea eta aukera, eta ez inposizioa edo ezarpena.

Eta askatasun horretan sakontzeko eta berori mugatzen dutenak gainditzeko asmoarekin, honakoak arautzen dira: euskal auzotasun zibila, herritar guztioi aukera, eskubide eta betebeharrak berdinak aitortuz, eskualdeei dagozkien ñabardurekin, seniparteak murriztu egiten dira kausatzaileari askatasun eremu berria emanez, ondorengo senipartea 4/5etik edo 2/3 herenetik heren bakarrera jaisten da, aurrekoentzat desagertu Bizkaiko tronkaltasunaren gehiegizko ondorioak mugatzen dira, tronkaltasuna ez baita sortuko ondasuna ondorengo bati eskualdatzen ez zaion bitartean; familia tronkaletik kanpokoen mesederako gauzatzen diren ondasun tronkalen doako xedatze egintzak deuseztagarriak izango dira eta ez erabateko deusezak, Arabako Aiara haranean ondasunak aukeran banatzeko eskubidea mantentzen da...

Askatasun zibilarekin batera, legearen oinarritzako printzipio eratzaileren artean, pertsonarenganako errespetua eta begirunea alde batetik, eta solidaritatea eta jabetzaren funtzio soziala bestetik, modu esanbidezko batean aldarrikatzen dira.

Aplikazio praktikorik gabeko adierazpen edo aitortzak direla eman arren, nork bere buruarekiko estimazioa suspertzeko baino, beste baliorik ez duten printzipioen itxura hartu arren, legea interpretatzeko erabil behar dira, eta sinetsi nahi dut horretarako erabiliko direla.

Jabetza eskubidearen kontzepzio edo sustrai solidarioa, banakako jabetzaz gainera, beste jabetza forma bereziak babestuko direla esan nahi du, eta interes partikularren gainetik familia eta gizartearen interesak eta pertsonaren duintasuna baloratu eta bermatuko direla.

Eta horren haritik, sarri desagerrarazi nahi izan den tronkaltasuna aipatu beharra dago. Tronkaltasunak berezitasunik inon badauka, jabetzaren izaera kolektibo edo familiakoan datza, interes partikularrei gailentzen zaien ikusmolde baten isla; solidaritatean eta funtzio sozialean oinarritzen den jabetza izaera berezia.

Gaur egungo testuinguru sozioekonomikoa, gizarte, familia eta ekonomia eredu eta egiturak tronkaltasuna sortu eta hedatu zenarekin zerikusirik ez dutela, esan beharrik ez dago. Ez eta gaur egun jabetza pribatua aukeran erabili edo xedatzeko askatasunari eta higiezinaren trafikoari mugak edo oztopoak jartzen dizkien edozer, horrek gehienon gaitzespena sortzen duelako.

Baina interes ekonomikoen eta aurrerabidearen interpretazio hutsezina ez den horren kontra, legegileak Bizkaiko gizartean sustrai sakonak dituen tronkaltasuna mantentzea erabaki du, haren aplikazio praktikoak sortzen zituen gehiegikeriak zuzenduz, eta alargunaren oinordetza eskubidean izan duen eragin negatiboa baztertuz. Izatez, erakunde juridiko zehatz horren bizirautearen arrazoia ez da iraganarekiko edo ohiturarekiko begirunea, baizik eta herritarrentzako erabilgarritasuna eta onuragarritasuna.

Eta legearen printzipioei dagokienez, aipatu behar dira ondareari buruzko zuzenbidearen printzipioak. Legearen printzipio eratzailleekin, — jabetzaren funtzio sozialarekin—, bat etorriz, alde batetik, baserriaren definizioa eta edukia eskaintzen ditu legeak familia-jabetza eta familia-ustiategi izaera azpimarratuz. Bestetik, landa-errentamendu (baserria eta lursailak) harreman juridikoek euskal tradizioan izan dituzten ezaugarri bereziak aipatzen ditu eta arauketa bereziaren bitartez beraiek gorde eta garatzeko deialdia luzatzen die botere publikoei.

Eta azkenik, kofradia, ermandade eta mutualitateen arauketa ahalbidetzen du legeak, hor gorpuzten baita euskaldunok betidanik elkarrekin jarduteko izan dugun joera nabarmena, hain zuzen ere, gizarte zibil baten adierazlea dena.

Euskara ere aipatzen da zuzenbide zibilaren printzipio eratzaillearen artean; zuzenbide zibilaren inspirazio baizik, errealitatea izan dadin, eta hori, jakina, gure eskuetan dago.